


BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

urratsak

0. URRATSA
2018ko otsaila

Abiapuntua: Bizitza vs. Kapitala



iparheg^oa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

LAB

>ekintza soziala

1. Bizitza vs. Kapitala, korapilo askaezina

“Jainkoak bezala, kapitalismoak ezin iritzi hobea du bere buruaren inguruan, eta ez du bere betikotasunaren gaineko zalantzarik”¹

“Etorkizuna irudikatu egin daiteke, eta ez onartu bakarrik”

Gizakiok izaki sozialak gara. **Bizirik jaiotzen gara, baina bizitza hori mantentzeko, ezinbestekoak ditugu harremanak.** Harremanak gure artean, elkarri laguntzeko; eta harremanak gure inguruarekin, bizirauteko behar ditugun baliabideak eskuratzeko. Biak ala biak dira ezinbestekoak.

Harreman horiek garatzeko moduaren arabera eraiki eta garatu dira kulturak, bizi-ereduak. Zeresanik ez, harreman horiek mugimenduan egon dira etengabe: ehizatzearen arabera mugitu, lurra lantzen ikasi eta sedentario bihurtu, jabetza pribatua asmatu, jendarte-antolaketa ereduak eraiki, baliabide naturalak pilatu, zapalkuntzak agertu, botere-harreman horiek irauli, zapalkuntza berriak agertu, teknologia eta teknikaren bidez bizi baldintzak hobetu, garraioa eta komunikazioak azkartu, bizirauteko beharrezko lanak banatu, jarduerak antolatu, soldatapeko lana asmatu... Jendarteak eta harremanak etengabe aldatu dira, eta, zoritxarrez, elkartasunaren eta berdintasunaren gainean eraikitako kultura gutxi topatuko ditugu. **Pertsonok elkarren beharra dugu, baina horrek ez du esan nahi elkarrekin bizirauteko garatutako sistemek pertsona denen beharrezkoak eta bizitzeko balio berdina eman eta horren arabera antolatu direnik.**

Gure ekintzek ere bizi izandako inguruan eragina izan dute. Inguruarekin oso sinbiosi ona izan duten kulturak egon dira, ia eragin kaltegarririk izan ez dutenak, baina ingurua guztiz aldatu dutenak ere egon dira. Ekosistemen suntsiketa ez da gaur egungo kontua: erromatar inperioak lurralde osoak deforestatu edo desertifikaziora kondenatu zituen. Euren ingurua kolapsora arte espoliatu eta ia arrastorik utzi gabe desagertu diren kulturaz josita dago Historia.

Orduan, zergatik kezkatu beharko gintuzke gaiak orain? Zergatik da sistema kapitalista hetero-patriarkala orain arteko eredu ekonomiko eta jendarte egiturak baino arrisku-

tsuagoa? Bi arrazoi oso sinple direla eta. Alde batetik, kapitalismo hetero-patriarkalak, aurrerago ikusiko dugun bezala, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren oinarri materialak, pertsonen arteko eta ingurugiroarekiko harremanak, erraustu egiten dituelako. Bestetik, sistema globalizatua izatera-koan, ez duelako kultura bakar baten suntsiketa suposatzen, bata bestearen atzetik elkarri kateatutakoena baizik. Guztiona, hain zuzen ere.

Ekonomiaren helburua eskura ditugun baliabideak duintasunez bizi ahal izateko kudeatzea izan beharko balitz ere, **ekonomiaren molde kapitalistan, merkatuak jartzen dira erdigunean, eta kapitalen metaketa da ekonomiak bermatzen duen prozesua.** Beraz, ondasunen banaketa justua gauzatu baino, baliabideok jendarte-egituraren arabera baliotsuagoak diren bizitzen eskuetan pilatzen dira.

Sistema hegemoniko kapitalista hetero-patriarkala, arrazialki egituratua, neokolonialista, antropozentrikoa, helduzentrikoa... da. Kapitalismoak **etengabe elkar zeharkatzen diren zapalkuntzen hierarkizazio sistema konplexu baten bidez, gainerakoek baino balio handiagoa duten bizitza gutxi batzuk seinalatzen ditu.** Horrela, piramidea hondoratzen hasiz gero, oso argi dago zein ordenetan joan behar garen itotzen: noren bizitzak dauden soberan lehen unetik, eta zeintzuk babestu behar diren kosta ala kosta. Hala ere, bizitzeko ezinbestekoak diren baliabideak suntsitzen dituen sistema batean, lehenago edo beranduago, denei iritsiko zaigu ura lepora.

Bizi garen mundu globalizatuari begiratu azkar bat botata, agerian geratzen da antolaketa sozioekonomiko osoa pribilegiatu gutxi batzuk euren (eta gainerakoen) baliabideen gainetik bizi ahal izatea sostengatzera bideratuta dagoela. Ekonomia feministatik oso ondo identifikatu da pribilegiatu multzo

¹ Atalen hasierako aipu guztiak Eduardo Galeanorenak dira. Alde batetik, inor gutxi delako kapitalismoa hitzekin hain ondo biluzteko. Bestetik, inor gutxi delako gai urratsez urrats bidea egiteko hainbeste gogo transmititzeko. Baina, ezeren gainetik eta batez ere, bizitzari gorazarre egin eta benetan bizitzea merezi duten bizitzak eraiki eta bizitzeko gogo horrela transmititzeko duen gaitasunagatik.

hori elite bera identifikatzen duen BBVA(h)-ren siglak baliatuz: gizon zuri, burges, heldu eta heterosexuala (gaztelaniaz *blanco, burgués, varón, adulto, heterosexual*). Eurenak dira sostengatzea merezi duten bizitzak.

Beraz, logika kapitalistaren arabera, bizitza batzuek beste batzuek baino gehiago balio dute. Are gehiago, gizakion bizitzak gurekin planeta konpartitzen duten gainerako bizitzen oso gainetik kokatzen ditu. Sistema guztiz antropozentrikoa da gurea, **gizakia izaki autonomo eta buruaskia balitz bezala ulertu, eta bizitzeko beharrezkoak zaizkigun baliabideak eskuragarri jartzen dizkigun natura, ekoizteko toki edo baliabide bezala ulertzen duena**. Natura guretzako (eta guretzako bakarrik) bat-batean inguruan agertutako supermerkatu erraldoi bat balitz bezala, nahi duguna nahi dugunean eta nahi haina hartu eta ondorioz ez balu bezala. Ilustrazio garaitik hona, natura menperatzea gizakiaren obsesio antzeko bat izan da, berau objektu bezala ulertuz, eta ez bere logika, dinamika eta erritmo propioak dituen osotasun bat bezala.

Ikuspegi hori funtsezkoa izan da merkatuek baliabide naturalak errausteraino ustiatu ahal izateko. Mendiak hustu arte mineralak erauzi, ur-iturburu naturalak pribatizatu, basoak deforestatu, ekosistemak arriskuan jarri, milaka espezieren desagertzea ezikusia egin, abereak elikatzekeo pentsua edo bio-erregaietarako zerealak ekoizteko pertsonak elikatzea zuzendutako lurak arpilatu, estolda-zuloak bailiran zaborrak eta hondakin kutsakorrek itsaso eta ibaietara isuri...

Aberastasuna sortzeko **proiektu modernizatzaile neoliberalaren formula magikoa etengabeko garapena, aurrerapena eta hazkundea dira, mundu finitu baten bizi garelako kontutan hartu gabe**. Kapitalen metaketari eusteko, merkatuek etengabe produzitu behar dute, etengabe garraiatu, saldu, bota, berriro produzitu, merkatu berriak zabaltzeko beharrezkoak sortu... Horretarako baliabide naturalak ezinbestekoak dira, eta naturak ez du **kapitalismoak bezain azkar produzitzen, erritmo pausatuagoa du**. Beraz, merkatuak kolapso baterantz doaz, abiadura bizian.

Hamarkadak igaro dira mugimendu ekologista ekosistemen suntsiketaz, biomasaren desagertzeaz eta aldaketa klimatikoaz ohartarazten hasi zenetik. Iparralde globalean bereziki, urrunetik begiratu nahi izan ditugu ondorioak, baina orain, muturren aurrean oihuka ditugula, gero eta zailagoa da beste alde batera begiratzea. Egoera ukalezina den arren, egindako esku-hartzeak xumeegiak izan dira, merkatuek baldintzatuegiak. Teknologian dugun fede itsua dela eta, laster

egoera iraultzeko gai izango den aurkikuntzaren bat egiteko zain gaudela dirudi.

Bitartean, baliabideak agortzen doaz. Aldaketa klimatikoaren ondorioz gero eta lur-azalera handiagoak ez dira bizigarriak, eta ondorioz gero eta jende multzo handiagoak euren jatorrietatik kanporatuak izaten ari dira. Geratzen diren baliabide urrien gaineko kontrola bermatzeko gerrak hedatzen doaz mundu osoan zehar, bestelako aitzakiez mozorrotuak ala ez, eta horrek are kanporaketa gehiago eragiten ditu. Lehengaien, bereziki erregai fosilen, eskasiak oinarriko kontsumo-ondasunen prezioek gora egitea eragiten du, baita gero eta jende multzo zabalagoek berauek eskuratu ahal ez izatea ere. Kutsadurak eta ozono geruzaren babesa gutxitzeak gaixotasun berriak sortu ditu; eta pobrezia egoerek eta osasun zerbitzuen desagertzea edo elitizazioak, berriz, desagertuta zeudenak berriro ere agertzea. Merkatuei mugak ezabatzea korporazio handiek ekoizpena deslokalizatzea ahalbidetu, eta herrialde batzuetara sasi-esklabotza eta beste batzuetara izugarriko langabezia ekarri dituzte. Erakunde finantzarioekiko zorrak kitatzeko, estatuek zerbitzu publikoak saltzen dituzte, beharrezko egoerak larrituz. Harresi fisikoak zein kulturalak eraikitzen dira herrialdeetako mugetan: ezin argiago adierazi pertsona batzuen bizitzek ez dutela salbatzea merezi. Pobretze orokortuak estatuek euren gain hartzen ez dituzten lanak familien esku geratzea dakar, hau da, emakumeen bizkar uztea. Prekarietatea da bizitzak deskribatzeko hitza: ziurgabetasuna nagusi den eta beldurra ematen duen mundu batean bizi gara. Tristeza da, baina apokalipsi naturala hainbeste aldiz ikusi dugu zientzia-fikzio pelikuletan, ez dugula gerta daitekeenik sinesten.

Eta, hala ere, gertatzen ari da. **Kapitalismoak porrot egin du, baina ez du onartu nahi. Gelditu eta norabidea aldatu beharrean, itsu-itsuan aurrera ihes egitearen aldeko hautua egin du**. Azken batean, piramidearen gero eta kapa gehiago ito arren, erpineko lagunek azken unera arte euren pribilegioak mantenduko dituzte. Bere makinaria ideologikoa jartzen du errealitate hau estaltzearen zerbitzura. **Berdez mozorrotu eta neurri txiki batzuk hartuta dena konponduko dela sinestarazi nahi digu**.

Argi izan behar dugu, egoera leuntzeko saiakerek kolapsoa atzeratu besterik ez dutela egingo: kapitalismoa sistema harrapakaria da, eta sostengatzeko ezinbestekoak dituen giza baliabideak zein baliabide naturalak ahituko ditu, bere buruarekin bukatu arte. **Kapitalismoa eta etengabeko hazkundea elkarri lotuta doaz; horregatik, kapitala eta bizitzaren artean askatu ezingo den korapiloa dago, konponbiderik ez duen kontraesana**. Kapitala ala bizitza. Kapitala ala gu.

2. Kapitalismoa, ukitzen duen guztia suntsitzen duen munstroa

"Merkatua. Pertsonen eta beste salgai batzuen prezioa zehazten den tokia."

"Biolentziak biolentzia eragiten du, jakina den legez, baina biolentziaren industriarako irabaziak ere sortzen ditu, ikuskizun bezala saldu eta kontsumo objektu bihurtzen du eta."

"Martxa honetan, hemendik gutxira planetaren jabeek gosea eta egarria debekatuko dituzte, ogia eta ura falta ez daitezen."

"Gerrek gezurrak esaten dituzte. Batek ere ez du lapurtzeko erailtzen duela esateko zintzotasuna."

Merkataritza ia jendarteak bezain zaharra da. Baina sistema kapitalista martxan jarri zenetik, merkatuek jendartean duten pisua etengabe handitzen joan da: pertsonen beharrianak asetzeko bitarteko izatetik, jendartearen erdigune bilakatu dira. Ekonomia korrante neoklasikoak gutxinaka jendartearen baloreetan eragin negargarria izango zuten ideiak txertatu zituen XIX. mendean zehar: prezioa ez dela faktoreen araberkoa, eskaeraren araberkoa baizik; merkatuak euren kabuz zuzentzen direla, beraz estatuek ez dutela bertan esku-hartu behar... Neoliberalismoa izan da korrante horren garapenean erraldoi-jauzia: merkatuak zentroan jarri eta bizitzako eremu guztien liberalizazioa, prezioa jarri ahal zaion edozer salerosteko aukera, hori omen benetako askatasuna.


Bigarren Mundu Gerratik hona ekonomia neurritz gabe eta oso azkar hazi da. Mundu mailako Barne Produktu Gordina 1989an 20 bilioi dolar izatetik, 2012an 71 bilioi euro izatera pasa zen. 30 urte loriatsuak deitutakoetan erregai merkeak eta mugen zabalpenak ekonomia globalizatzea erraztu, eta *mendebaldeko* ongizate estatu eratu berrietan gutxieneko bizi-maila duina herritar kapa zabalen artean hedatzeak kontsumoa bermatu zuen, potentzia batzuk abiadura bizian haztea ahalbidetuz.

Natura eta lehengaiak gure beharretarako eskuragarri dauden baliabide direnaren konbentzimendua, teknologiarengan fede itsua eta mugagabeko hazkundea aberastanaren sinonimo bezala ulertzea ezinbestekoak ziren eredu horren eraikuntzarako. Neoliberalismoaren eskutik zetorren "*proiektu modernizatzailea*"-k (etengabeko garapena, aurrerapena eta hazkundea) munduaren ulerkera berri bat sortu zuen: eredu hori indarrean zegoen Lehen Mundua, hura

helburu zuen Garapen Bidean zegoena, eta pobrezia nagusi zen Hirugarren Mundua. **Ulerkera horren arabera, pobrezia merkatuan eskuratzeko ahalmenaren arabera neurtzen da, bizitzan eragina duten bestelako elementu batzuk aintzat hartu gabe: osasuna, zorientasuna...** Beraz, urte loriatsu horien argazkiaren ertzetan, desberdintasun ekonomiko, politiko zein sozialak ekonomia bezain abiadura bizian hazten ari ziren.


Hazkunde ekonomikoa neurtzeko Barne Produktu Gordina erabiltzen dugu, baina zer neurtzen du BPG-k? Merkatuetan aberastasuna sortzen duten jardueren hazkundea. Herrialdeetako ongizatearen neurgailu bezala saltzen diguten arren, bere erreferentzia merkatuak diren heinean, ustezko aberastan hori dakarten jarduerak ez dute zertan pertsonentzako onurarik ekarri, are gutxiago aberastan hori banatu. BPG-ek gora egiten dutela baliatuta, krisialditik ateratzen ari garela saldu nahi digute, baina errealitatea da bizi baldintzen prekarizazioaren ondorioz, pobrezia hedatzen ari dela. Beraz, zalantzarik gabe, BPGak ez du ongizatea neurtzen. Espekulazioak, erregaien kontsumoak igotzeak, kutsatutako iturburuak ordezkatzeko botilaratutako ura saltseak... BPG-arentzako aberastan sortzen dute. Enpleguek, gero eta gutxiago. **Merkatutik kanpo dauden jarduerak, ez omen dute aberastan sortzen, nahiz eta bizitza sostengatzeko oinarriak jarri:** haurren eta nagusien zaintza, auzolana, autokontsumorako ortuetako lana, ingurugiroaren aldeko lana...

Altzairuzko Oihalaren erorkerak ere urte horien bukaerarekin bat egiteak kapitalismoa beste biderik ez zegoen diskurtsoa indartu zuen, Margaret Thatcher-en TINA (*There Is No Alternative*) horren lekuko. Bestelako eredurik ez parean, neo-



1. Aberastasunaren banaketa.

(Worldmapper²) Munduko bi herenetan aberastasuna hazi egin zen 1975-2002 artea. Hazkunderik nabariena Txinarena izan zen. Mapak erakusten duen bezala, dagoeneko aberatsagoak ziren herrialdeek jarraitu zuten aberasten, BPG txikia zuten herrialdeetan ia hazkunderik egon ez zelarik.



2. Giza pobrezia. (Worldmapper)

Mapan agerian geratzen da munduko aberastasunaren banaketan dagoen desoreka. Hegoalde globalean metatzen da, Afrika eta India inguruan batez ere.

liberalismoak maskara kendu ahal izan zuen. Ongizate estatua desmantelatzeari ekin zitzaion: aberastasunaren ogi apurren banaketa desagertzeko bidean jarri eta herritarren bizi baldintzak babesteko zerbitzu publikoak privatizatzeko prozesua hasi zen. Merkatuak globalizatzeko muga nagusiak estatu bakoitzaren mugak eta aduanak zirenez, merkatua bateratzeko Merkataritza Askeko Itunak sinatzen hasi ziren, baita estatz gairik gero eta eskumen eta botere gehiago ematen ere. **Botere korporatiboa aberasten jarraitzeko muga estatuen legediak zirenez, ekonomiaren joko-arauak estatuen arteko gailurretan edo Europar Batasuna bezalako instituzioetan jartzea interesatzen zitzaion.** Alde bate-tik, herritarrek oso urrun sentitzen dituzten eremuak direnez, erresistentzia txikiagoa delako. Bestetik, bertan korporazioek ere negoziatioetan zuzenean edo zeharka parte hartu ahal dutelako. Azkenik, erabakiak hartzeko prozedurak oso ilunak direnez, herritarrekin konpartitu gabe izugarritzko basakeriak

onartzeko ahalmena dutelako. Horrela, **azken hamarkadetan estatuak etengabe burujabetza galtzen joan dira, herritarren eskubideen eta demokraziaren kaltetan.**

Merkatuak zentroan baldin badaude, bizitzak merkatuak sostengatzeko antolatzen dira. Dela eskulana erreproduzitzeko ugalduz eta dohainik lan eginda, dela egunerokotasuna lan-merkatuko lanaldiaren arabera antolatuta, dela aisialdia ekoizpen guzti hori kontsumitzera bideratuta. Kapitalismoak independentzia eta askatasuna saltzen ditu, baina menpekotasuna eta esklabotza besterik ez da.

Dena den, bizitza batzuek beste batzuek baino gehiago balio dute. Gutxi batzuen erosotasun, pribilegio eta aberastasu-aren metaketa hori beste sektore batzuek esplotatuz, eurekiko zorrak pilatuz, lortzen da. Bereziki, zor ekologikoa, emakumeekiko zorra edo zaintzen zorra eta herriekiko zorra.

2 Worldmapper adierazleen arabera herrialdeen tamaina aldatzen duen 700 mapako bilduma bat da. Adierazle bakoitzaren arabera herrialdean handitzen edo txikitzen doaz, gai horri dagokionez munduan okupatzen duten espazioa adierazteko. Desberdintasunak agerian uzteko oso erabilgarria da. <http://www.worldmapper.org/index.html>

3. Elkar behar dugula ez sinestearen ondoriozko zorra

“Bakarrik egoteko kemena bagenu, eta elkarrekin egotera arriskatzeko ausardia!”

Kapitalismo hetero-patriarkalak kapitalarentzako onuragarria dena erdigunean jarri eta baloratzen du; pertsonentzako onuragarria dena, ordea, bigarren edo hirugarren mailan utziz, zokoratua.

Behin eta berriro errepikatu bezala, merkatuaren eta neurritz gabeko hazkundearen logikak bizitzaren beharrekin talka egiten du. Beraz, **giza bizitzaren zaintza ekonomikoki errentagarria kontsideratzen ez den unetik, familien esku uzten da**, eta genero-rolen banaketaren ondorioz, emakumeen esku.

Patriarkatuak etxeko eta zaintza lanak emakumeen lan-tzat hartu ditu, eta kapitalismoak zuzenean ateratzen dio horri onura: eskulana erreproduzitzeko beharrezkoa duen lana dohainik ateratzen zaio eta. **Horregatik diogu kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko aliantza ezinbestekoa dela.** Teoria desberdinak daude honen inguruan: egun sistema bat eta bakarra direla dioena, elkar osatzen duten bi sistema direla, egun bata bestea gabe eroriko lirakekeen bi sistema direla... Edonola ere, eta asko laburbilduz, patriarkatuak jendartea binomioetan antolatzen du: gizona eta emakumea, natura eta arrazoia, indartsua eta zaugarria, aktiboa eta pasiboa... Logika honen arabera, emakumea gizonaren menpekora dela irudikatzen dugu. Kapitalismoak egiturazko zapalkuntza hori baliatzen du emakumea ekonomikoki esplotatzeko. Patriarkatuak genero rol batzuk esleitu (abegikorra, atsegina, sentibera... izatea) eta horien arabera zaintzaren ardurua emakumeei egozten badie, kapitalismoak egoera horri etekin ekonomikoa ateratzen dio, emakumeek jendartearen begietara balio txikiagoa duten heinean, berauek burututako lanei ere balioa kendu, ikusezin bihurtu, eta ez ordainduz. Jendartean bi eremu eraikitzen dira, bata publikoa, merkatuari lotua, ikusgarritasuna eta boterea garatzen diren espazioa; eta bestea pribatua, etxeari lotua, eta boterez desjabetua. Jendarte antolaketa eta harremanak egiturazko zapalkuntza horren gainean eraikitzen dira. Iruditegiak, genero-rolak, hizkera sexista, aurreiritzi eta estereotipoak, beldurrak, debeku eta mugak... Txikitatik barnatzen ditugun heinean, gure begietara ikusezinak bihurtzen dira: muturreko indarkeria kasuak dira agerian geratzen direnak. Horregatik hitz egiten dugun genero **indarkeria-
ren izebergaz**: ikusten den mutur horren azpian, izotz bloke oso bat dago. Hain gainera azalduta ere, agerian geratzen da

emakumeenak ez daudela kapitalaren ustez bizitza merezi duten bizitzen artean. Binomioei erreparatuta, ohartuko gara emakumea eta natura parekatu egiten dituela, aipatu dugun BBVAh horrentzako esplotagarri diren objektu bilakatuz.


Ekonomia feministatik kritikatu izan den bezala, merkatuaren arabera eraikitako begiradan, gizonak bat-batean, lurretatik atera berri bezala, agertzen dira euren lanpostuetan elikatuta, deskantsatuta, arropa garbi-garbi, hurrengo otordua prest, kezka eta barrenak norbaitekin askatuta, seme-alabak izatekotan hauekikoak eginda... buruan kezka bakarra lanordua diligenziaz betetzea dutela. Cristina Carrascok “langile txanpiñoia-
ren” metaforarekin azaltzen duen errealitate honek ezin hobeto deskribatzen du gizaki autonomoaren ezinezkotasuna.

Merkatutik kanpo, etxeetan, besteentzako ezkutuan eta soldata gabe lanean egondako norbait egon da eta dago: emakumeak. Eurena bai esku ikusezina, eta ez Adam Smithe-
na! Zaintza lanak ez dira mendeetan aintzat hartu, emakumeek garatu baitituzte, euren enplegua bailiran.


Hala ere, dagoeneko, etxeko eta zaintza lanak ez dira etxe-koandreen monopolioa. Industrializaziotik, eta bereziki, Bigarren Mundu Gerratik aurrera, herrialde askotan, Iparralde globalekoetan batez ere, emakumeak masiboki hasi ziren lan merkatuan sartzen. Soldatapeko lanetan ere, ordutik hona nabaria izan da zaintzarekin lotutako sektoreen feminizazioa: irakaskuntza, osasungintza, garbiketara, bulegari-lanak... Era berean, aski salatu izan da eta ez dugu testu honetan sakonduko, lan-merkatuan emakumeek lan-postuetan, eta beraz soldate-
tan, gora egiteko topatutako “kristalezko sabaia”. Zeresanik ez, horrek eragin zuzena dauka pobreziaren feminizazioan.

Lan merkatuetan sarrera honek, krisi bikoitza ekarri zuen bizitzaren zaintzaren eremura. Alde batetik, emakume gehien kasuan, aitortu (eta ordaindu) gabeko **lanaldi bikoitza**: bata soldatapeko lanean, eta bestea, derrigorra eta ordaindugabea, etxera iristean zain zuena. Sistema kapitalista hetero-patriarkalak emakumeak birritan zukutzen ditu, beraz. Nekeak, denbora faltak, baliabide eskasiak... bizitzaren zaintza prekarizatzea izan dute ondorio. Bestetik, **mundu globalizatuak eta desberdintasun sozialek, krisi hori “konpontzeko” familia batzuek euren**

**Lanaldi partzialaren feminizazioa (%).
Euskal Herria, 2015 urtea**



**Lanaldi partzialen bilakaera emakumezkoen artean (2008=100).
Euskal Herria eta Europa**



3-4. Lanaldi partzialaren feminizazioa. (Gaindegia) Euskal herrian, lanaldi partzialen %79,5 emakumeek betetzen dituzte. Lurraldez lurralde, kopuruak antzekoak dira tasa altuena EAE-n eta baxuena Nafarroa Beherean dagoelarik. Horrez gain, partzialitatea goranzko joera da 2008tik hona, bai Euskal Herrian, baita inguruko herrialdeetan ere.

gain dauden zaintza lanak burutzeko beste pertsona batzuk kontratatzea ahalbidetzen du. Gutxi baloratutako, kualifikatu gabeko, eta oro har, soldata baxuko enplegu prekarioak direnez, eskaintza hoberik ez duten emakume etorkinek betetzen dituzte, Europara bertakoen nagusiak eta seme-alabak zaintzeko enplegu bila etorri ahal izateko, maiz euren seme-alabak jaioterrian senideen kargura utzitako emakumeak. Nazioarteko zaintza eta zor kateak sortzen dira horrela.

Era berean, kapitalista askok zaintza-krisiari neurria hartu, eta negozio aukera probestu dute, erresidentziak zein zaharren egoitzak irekiz edo publikoak pribatizatzeke presio eginez. Eurek ondo ulertu dute sistemak ezkututzen duena: modu batean edo bestean, zaintza beti dela beharrezkoa.

Krisi ekonomikoak zaintza-krisia larritu egin du. Estatuetan austeritate-politikek zerbitzu-publikoak murriztu eta emakumeen lan karga handitu dute. Sektore pribatua, errentagarritasuna bilatzen duen heinean prekarioagoa eta jende gutxiagorentzako eskuragarria, potolotzea ekarri du horrek.

Krisian zehar zein aurretik, etxeko nagusiak zein txikiak zaintzeko denbora gehiago behar izateak, eragin zuzena du lan merkatuan. **2015ean Euskal Herrian enplegu partzialen %79,5 emakumeek betetzea ez da kasualitatea, bizitza eta lan-merkatua bateratzeko ezintasunaren ondorio baidir.** Gaindegiarekin batera 2016an argitaratu genuen "Desherria: hausturak eta etenak Euskal Herrian" argitalpenean aztertutako bezala, prekaritatearen feminizazioa aspalditik datorren joera da, eta krisi ekonomikoak areagotu besterik ez du egin. Hego Euskal Herrian 2013ko Alderdi Popularraren lan-erreformak emakumeen behin-behinekotasuna eta partzialitatea nabarmen handitu bazituen ere, tasak oso antzekoak dira Euskal Herriko lurralde guztietan. Macron-en lan-erreformak utziko dituen ondorioei adi egon behar dugu orain. **Lanaldi partzialerako arrazoi nagusiak lanaldi osorik topatu ez izana eta haur eta helduen zaintza zamak ziren.**

Generoaren arabera lan banaketaren gaineko kontzientzia areagotu eta nolabaiteko banaketa eman bada ere, agerikoa da emakumeak direla oraindik etxeko eta zaintza-lanen arduradunak, eta gizonek "lagundu" egiten dutela, oro har. EAE-ko Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera (Eustat, 1993-2003) emakumeek etxeko eta zaintza lanei gizonek baino denbora gehiago eskaintzen diete; gizonek, euren aldetik, soldatapeko lanari zaintza lanei baino denbora gehiago. Emakumeen gain askoz lan gehiago dagoela islatzen du horrek inkestaren arabera, izan ere, soldatapeko lana asteleheneretik ostiralera burutzen da batez ere, eta etxeko eta zaintza lanak, egunero.

Azken 20 urteetan, emakumeek etxean egindako lanak behera eta merkatuan egindakoak gora, eta gizonen kasuan, kontrakoa egin badu ere, lan karga errealean desberdintasun handiak izaten jarraitzen dute. Emakumeek egunean ordu bate gehiago eskaintzen diote batez beste etxekoari, astean 7 ordu beraz: lanaldi oso bat. Horrek aisialdirako, bizitza sozialerako zein norberarentzako denbora gutxiago izatea dakar.

Mugimendu feministatik **zaintza aztarna aldarrikatu izan da bizitzaren sostenguan pertsonon parte-hartzea adierazteko neurgailu gisa.** Zeresanik ez, gizonak dira aztarna handiena dutenak, mendeetan zehar emakumeekiko zaintza-zor handia pilatuz. Genero desorekei, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrien arteko zaintza-zorra gehitu behar diogu gaur egun.

Yayo Herrerok dioten bezala, lana ezinbestekoa da bizitza sostengatzeko, baina gaur egun bizitza sostengatzen duten lanak eta berau suntsitzen dutenak daude. Jendarte-egitura eta ekonomia bizitza erdigunean jarrita berreraikiko baditugu, **sozialki beharrezkoak diren lanak zeintzuk diren identifikatzea ezinbestekoa da, balioan jarri, birbanatu eta gainerakoak birmoldatzeko.**

Era berean, bizitza erdigunean jartzen duen eredu batean, bizitza da helburu, ez enplegua. Beraz, lanaren birbanaketaren eskutik, lanaldiaren murrizketa ezinbestekoa da.

4. Kolapso ekologikoa, aspaldi hasitako atzerakontua

“Basoak larrutzen dira, lurra desertu egin, errekek pozoitzen dira, poloetako izotza eta gailur altuetako elurrak urtu. Leku askotan euriak euri egiteari utzi dio, eta beste askotan zerua erdibituko balitz bezala botatzen du euria”

“Nor geratzen da urarekin? Garrotea duen tximinoa. Armatu gabeko tximinoa egarriz hiltzen da”

“Iparraldean eta Hegoaldean, Ekialdean eta Mendebaldean, gizakiak, eldarniozko gogoberotasunez, eserita dagoen adarra zerratzen du”

Inguruarekiko harremana ezinbestekoa da gizakiontzat, bertatik hartzen baitugu bizirauteko behar ditugun airea, ura, elikagaiak, baita ekoizpen orotarako lehengaiak ere. Horietarikoren bat falta izanez gero, badagoen tokiren batera emigratzera behartuta egongo ginatke: dena ezin da merkatuan inportatu. Baina, esan bezala, kapitalismoak bizitza zein ekonomiaren hazkundera sostengatzeko ezinbestekoak diren **oinarri materialak neurri gabe kontsumitu eta ahitzen ditu, eta ondorioz, bizitzaren zein merkatuaren biziraupena arriskuan jarri.**


Aztarna ekologikoak gure biogaitasuna neurtzen du, hau da, egun garatzen ditugun jarduerak bere horretan mantentzeko beharrezkoa dugun lur eta itsaso azalera. Era berean, sortzen dugun inpaktua zein den islatu eta burujabetza neurtzen du. Izan ere, bere biogaitasuna gainditzen duten pertsona zein herrialdeek, besteena kontsumitzen dute. Nolabait esatearren, gainerakoen erreserbak lapurtzen dituzte, dela beste herri batzuen, dela hurrengo belaunaldiena. **Hazkundera orekatua ez den heinean, aztarna ekologikoa ere ez da:** Iparralde globaleko herrialdeak dira euren biogaitasuna gaindituz, Hegoalde globaleko herriengan (eta defendatu ezin diren arren, hurrengo belaunaldiengan) izugarritzko presioa eragiten dutenak: **zor ekologikoa** esaten diogu horri. Estatu Batuak, Txina, India, Brasil, Errusia, Algeria eta Australia dira munduan aztarna ekologiko handiena duten herrialdeak, eta lehenengo hiruek honezkero euren biogaitasuna agortu dute. Euskal Herriko jarduera ekonomikoak gure azalera halako hiru eta erdi beharko lituzke mantentzeko. Lurraldeka begiratuta, Bizkaiko aztarna ekologikoa da altuena: 2007ko datuen arabera, pertsonako 4,8 hektareakoa zen.

Planetak birsortu edo xurgatu ahal dituen baliabideen kontsumoa aztertzeko beste neurgailu bat urteko **aurrekontu ekologikoa** da. Planetako biztanleriak irailerako gainditzen du Lurraren gaitasuna; euskal herritarrok, apirilerako.

Nahiz eta krisi ekonomikoaren ondorioz herrialde batzuek (gogoz kontra) euren hazkundera jaitsi behar izan, beste potentzia batzuek areagotu egin dute, Txinak adibidez.

Planeta finitu batean bizi gara. **Naturan bizitza birproduzitzeko eta energia berrerabiltzeko prozesuak oso motelak dira, eta ziklikoak:** ahalik eta hondakin gutxiena uzten dute, baten soberakina bestean bizitza da. Dena dago aldaketa mantsoan murgilduta, eta beraz, ezer ez da betiko. Mineral batzuk kopuru zehatz batean daude, erregai batzuek milioika urte behar dituzte sortzeko, espezieak mendeetan zehar desagertzen eta eraldatzen dira... Gure abiadura biziko garapenaren kulturak oso bestelako erritmoa du. Horregatik, nahiz eta naturak bere baitan ematen diren desorekak zuzentzeko gaitasuna izan (erresilientzia), giza-jardueren ondorioz ematen direnak kopuru handiegian eta erritmo biziagian pilatzen dira. Uren, lurraren eta airearen kutsadura, basoen deforestazioak, eraikuntza erraldoiak, lurren mugimendua, hondakinak eta zaborra, espezie batzuen gehiegizko ustiaketa eta beste batzuk alboratzea... Ekosistemen suntsiketa sistemakoak espezieen desagertzea, animalien mugimenduak, azalera bioproduktiboen gutxitzea, etab. luze bat dakartza. Lurra bizigarritasuna galtzen ari da neurririk gabeko hazkunderaren ondorioz.

Planeta, edo gure zibilizazioa gutxienez, kolapso baterantz abiadura bizian doala adierazten duten hainbat zantzu ditugu ate joka. Nagusiak energiaren gainbehera, elikadura krisia eta aldaketa klimatikoa dira. Zoritxarrez, sistemaren propagandak **kapitalismo berdea** existitzeko aukera barnerrazi digu, hau da, **zientzia, teknologia, berrikuntza, publizitate eta diru kopuru egokien baturak kapitalismoa jasangarri egingo dutela.** Ez da hala: planetaren mugak benetakoak dira, eta gu moldatu behar gara haietara, ez dugu alderantzizkoa gertatzerik lortuko.



5

5. Karbono isurketak. (Worldmapper)

Karbono dioxidoaren isurketak eragiten du negutegi efektuaren %65 eta isurketon zati handiena 21 herrialderen artean egiten da, gehienak Ipar Amerikan, Europan eta Asia ekialdean.

4.1. Aldaketa klimatikoa

Klimak beti eragin izan du giza-zibilizazioengan, bizitzako aspektu asko baldintzaturik edo ezaugarrituz. Hala ere, azken bi mendeetan, industrializaziotik hona, funtsezko aldaketa bat eman da: giza-jarduera da orain kliman eragiten duena. Aldaketa klimatikoa ez da zehazki neurgarria, ez baita kutsadurari proportzionala: behin ondorioak abiatuta, euren elkar-eragina eta garapena aurreikusi ezinak eta progresiboak dira.

Gaur egun, zientzialariek egindako aurreikuspenak aski ezagunak dira: mende bukaerarako 5,6°-ko temperatura igotzea; 20-88 zentimetro arteko itsas-mailaren igoera, poloen urte progresiboa, espezie askoren desagertzea eta mutazioa, desertifikazioaren hedapena, nekazaritza eta abeltzaintzarako zailtasunak, gaixotasun berrien agerpena... eta fenomeno berri hauek **lurralde guztiak berdin kolpatuko ez dituztenez, eta bizi baldintzak mantentzeko baliabide berdinak ez ditugunez, desberdintasun ekonomiko eta sozialetan sakontzea.**

Garapenerako Nazio Batuen Programaren arabera, 2080an 600 milioi pertsona gehiagok desnutritzioa pairatu ahalko lukete, uholdeen eta desertifikazioaren ondorioz 300 milioi desplazatu gehiago egoteko arriskua dugu eta 1.800 milioi pertsonak ez lukete ur nahikorik. Hainbeste urte itxaron gabe ere, egoera horietako asko gertatzen hasi dira.

Aldaketa klimatikoa oso lotuta dago **bio-aniztasunaren desagertzearekin**. 2012an, anfibioen %41, ugaztunen %25 eta hegaztien %13 berehalako iraungipen arriskuan zeuden. Urtero 63.000 izaki bizidun espezie desagertzen dira. 2050erako, munduko espezieen laurden bat desagertzeko arriskua dago. Oso adierazgarria da munduko landarediaren %50 eta ornodunen %42, planetaren azaleraren %2,3an pilatuta bizi direla, "atzeratutako" kulturatzat ditugun horiekin konpartitutako guneetan, hain zuzen ere. Euskal Herrian bioaniztasun galeraren oihartzunak gero eta ozenagoak dira: bertako mendi eta basoetan gero eta urriagoa da fauna basatia, pinua merkantilizatzeko paisaia hipotekatu da, eta itsasoa antxoaz eta hegazuze gorritz husten ari da.



6

6. Desagertzeko arriskuan dauden espezieak. (Worldmapper)

Hegoalde globalean mantentzen dira, eta irlek berebiziko papera dute: Maurizio irle, Malasia artxipelagoari eta Madagaskari begiratu besterik ez dago. 2004Ean, 15.503 ziren arriskuan zeuden izaki bizidunak.

Egoerari aurre egiteko hartutako neurriek gehiago eduki dute argazkiz, egitatez baino. Planetaren temperatura 2 gradutik gora igotzea saihesteko konpromisoa hartu zuten munduko potentziek COOP21 gailurrean, baina ordutik hona hartutako neurriak xumeegiak izan dira. Esan bezala, neurriok ekonomian aldaketa sakonik egin gabe gauzatu nahi dira, hazkundera mantenduz, eta hori ezinezkoa da. **Ekonomia hazkundera izugarri apaldu eta birmoldatu behar da.**

Euskal Herrian, eredu energetikoaren ondorioz, negutegi efektuko gasen isurketak %47 egin du gora 1990-2008 artean. Biztanleko egiten dugun gas isurketak Europar Batasuneko batez bestekoa gainditu, eta Txinakoa, adibidez, hirukoizten du. 2008an, bertako 240 enpresek gainditu zituzten ezarritako kutsadura mugak.

4.2. Krisi energetikoa eta lehengaien agorpena

Gero eta agerikoagoa den beste zantzu bat gure hazkundera erritmoa mantentzeko ezinbestekoak diren lehengai energetiko askoren agorpena da. Ondorioz, **hurrengo mende laurdenean, eskuragarri dugun energia %45-25 artean gutxituko da.**


Oihartzun handiena petrolioaren gailurrak (*peak oil*) izan badu ere, beste gailur batzuk ere (*peak all*) hurbiltzen ari dira. Beraz, egoerari aurre egiteko, ezinbestekoak dira energia alternatiboetan egin beharreko inbertsioak eta petrolio gabeko mundu baterako azpiegituraren diseinua.

Erabiltzen dugun energiaren %35 eta %21 petroliotik eta gas naturaletik datoz, hurrenez hurren. Elektrizitatearen bi he-

renak, nekazaritzan eta garraioan erabiltzen den erregai ia guztiak zein produktu askoren ekoizpenak ere erregai solidoetan dute jatorria. Ondasunen garraio eta banaketa, medikuntza-teknologia, eraikuntza, *informazioaren jendartea*... petrolioaren menpekoak dira. Nola ez, Euskal Herria ere menpekotasun horren adierazgarri da: gure menpekotasun tasa %95eko da, Europakoaren (%52) oso gaineratik. Gainera, kontsumitzen ditugun baliabide energetiko ia guztiak inportatutakoak dira, beraz euren gaineko erabakiguneetatik oso urrun gaude.

Petrolio eskasia ez da arazo berria: petrolioaren prezioaren gorabeherek erakusten dute putzu errentagarriak topatzea gero eta zailagoa dela. **Gero eta kalitate txarragoko eta erauzketa-prozesu garestiagoko putzuak ustiatu, orduan eta garestiago, eta beraz, jende gutxiagorentzako eskuragarri.** Berdina gertatzen da gas naturalarekin ere: hortik dator fracking-aren aldeko apustua. Azpiegitura asko eskatzen dituen epe laburreko prozedura kutsakorra den arren, gas zertxobait gehiago eskuratzea ahalbidetzen du. Bizitza erdigunean kokatzen duen sistema batean balantzan, alde batean fracking-ak eragiten dituen kalte ekologikoak, eta bestean ematen duen gas apurra jarrita, argi legoke zein aukeratu beharko litzatekeen. Baina kapitalismoan merkatua dago erdigunean, eta merkatuak bizitzeko petrolio eta gasa behar ditu. Ikatz erreserbak ere ez daude euren momentu onenean.

Hazkundera mantenduz, energia-krisiari aurre egiteko energia-nuklearra proposatu da denbora luzez, baina datu desberdinek aukera hori ere baliogabetu dute. Alde batetik, uranioa bera ere desagerpen-arriskuan dago. Bestetik, zentral nuklearraren eraikuntzak negutegi-efektu gasen isurketa handia eragiten du. Hondakin erradioaktiboak desagiteko arazoa ere hor dago. Azkenik, ezin diogu istripu-arriskuari ezikusia egin: milaka hildako momentuan, beste milaka gaixotu ondoren eta lurrazala hamarkadetarako kutsatua.




7. Ur-baliabideak. (Worldmapper)

Mapan tratamendu berezi gabe kontsumi daitezkeen ur-iturriak non pilatzen diren adierazten da. Uraren erabileraren mapan ikusiko dugun bezala, ez dator bat egiten dugun uraren kontsumoarekin.

8. Uraren erabilera. (Worldmapper)

Urtean 4.000 kilometro kubiko ur erabiltzen dira bizirauteko zein nekazaritza eta industria jardueretarako, meatzaritza eta energia bezalako jarduerak eta aisialdirako erabilera kontuan hartu gabe. Mundu guztiak ura behar badu ere, Afrika erdialdeko biztanleek egunero Estatu Batuetako biztanleek kontsumitzen duten uraren %2 kontsumitzen dute.



8

Energia garbi eta berriztagarrien aldeko apustua ezinbestekoa da. **Baina ezin gara alternatiba honekin itsutu eta benetako helburua ahaztu: ezin da egungo hazkundera mantentzeko saihesbidea izan,** ekonomiaren desazkundera eman egin behar da. Luca Mercallik zioen bezala, "energiarik onena erabiltzen ez dena da".

Gainera, sektore energetikoak aldaketa klimatikoan ere topatu du aberasten jarraitzeko merkatu-hobia. Alde batetik, aldaketa klimatikoan eragin handiena izan duten korporazio horiek beraiek kanpora begira ematen duten irudia dugu. XXI. mendetik aurrera, orokorrean aldaketa klimatikoaren mamu-ari uko egiteari utzi, eta euren merkaturatze estrategian barnebilatu dute. Erantzunik ohikoena aldaketa klimatikoaren inguruko batzorderen bat sortzea da. Marketing-ari dagokionez, aldaketa klimatikoa aitortu eta bere jardueretan birmoldaketa emango dela publikoki esatea enpresa-praktika ontzat hartzen da eta. Horrela, agro-erregaien eremuan aitzindariak diren hegazkin-konpainiak eta "karbonorik gabeko garagardoa" ekoizten duten fabrika *eco-friendly*ak hedatzen doaz, ekoizpenaren hazkundera zalantza jarri gabe. Hala ere, **enpresok publiko egiten dituzten konpromisoak malguak eta lausoak izaten dira:** jasangarritasunaren bidean milioiak inbertituko dituztela diote, eperik eta helburu lorgaririk zehaztu gabe: titularrak eta publikizitatea lortzen dituzte, funtsezko aldaketarik eman gabe.

Bestetik, energia-korporazioen apustu estrategikoa dugu. Izan ere, euren "politika-klimatikoak" arriskuen gestioa besterik ez dira. **Hidrokarburoak erazten dituzten enpresek argi dute irabazi gehiago aterako dituztela erregai erreserba handiak pilatuz eta lur-eremu eta erregai ez-konbentzionalak esplotatuz, energia berriztagarrietara trantsizioa eginez baino.** Horregatik, estatuen politikak, eta bereziki nazioarteko erakundeetakoak, baldintzatzeko lobby boteretsuak jarri

dituzte martxan: ez zaie krisi energetikoa edo aldaketa klimatikoa dela eta merkaturaren erregulazioa interesatzen. Are gehiago, korporazio askok, Shell-ek adibidez, aldaketa klimatikoak zein onura ekar diezazkiokeen aztertzeko ikerketak ere egin ditu, artikoaren urketak bertako erazketak zein itsaspekoak erraztuko dituelakoan. Argi dago, agortzen dabilzan erregai fosilei alternatiba bilatu baino, euren eskasiaren kontura azken tantara arte negoziarioa aprobetxatzea dela apustua. Naomi Klein-ek defendatu bezala, "planeta suntsitzea euren enpresa-eredua" da.

Mineral asko ere badira ahitzeko arriskuan daudenak: kobrea, eztainua, zilarra, beruna, urea, kromioa, zinka, litioa... Gauza baterako edo besterako ezinbestekoak ditugun eta bukatzen ari diren baliabideak. Euskal Herriko gune zehatz batzuetan meatzaritza-tradizio handia izan bada ere, egun erabiltzen ditugun mineral metaliko guztiak inportatu egiten ditugu. Alde batetik, burujabetza galera dakar horrek, industriarako lehengaiak ekoizteko gai ez garelako; eta, bestetik, beste herrialde batzuekiko gure zor ekologikoa areagotu egiten du, meatzaritzaren ondoriozko kutsadura esportatzen duten herrietan sortzen da eta.

Bestalde, **mineral askoren desagerpenak trantsizio-energetikoaren bideragarritasuna ere arriskuan jartzen du,** haize-sorgailuak edo eguzki-panelak ekoizteko beharrezkoak dira eta.

Agorpenaren eskutik datoz material hauen kontrola menperatzeko gatazkak. Direla gerrak, gatazka diplomatikoak, okupazio militarrek, potentzia desberdinek sustatutako gatazka tribal edo ezegonkortasun politikoa... Betidanik existitu badira ere, lehengaien agorpenak agenda geopolitikoaren erdigunean kokatuko ditu. Afrikako koltanaren gerrak edo Ekialde Hurbileko petrolioaren diru honetan adibiderik lazgarriena dena bi.


4.3. Elikadura-krisia

Neurri gabeko hazkunderak elikaduran ere eduki ditu bere itzulpena eta ondorioak. Biologia eta kimikaren garapenak nekazaritza eredu industrialak ahalbideratu zuen. Bere garaian, **iraultza berdea** deitu zitzaion, ekoizpena hainbeste hazita, munduko gosearekin akabatzeke gai izango baitzen. Eta egia esan, horretara bideratuta egon balitz, seguruenik hala egingo zukeen.


Nekazaritza eredu industrialak oso intentsiboa da eta lur-azalera izugarri handiak behar ditu. Bi ondorio kaltegarri eragiten ditu horrek, lehen ezaugarritik hasita: alde batetik, lurra ahitzen du, agortu, bere emankortasuna xurgatu; eta, bestetik, lurrazala esku gutxitan pilatu, horretarako jatorrizko herriei edo nekazari txikiei kenduz. Ekoizpen intentsibo hori egiteko, esan bezala, pestizida, herbizida eta ongari kimikoak baliatzen dira. Denborarekin, hazien

manipulazio genetikoak ere hasi zen, eta transgenikoen eskutik ekoizpena biderkatu. Produktuon erabilerak giza osasunean eduki ditzakeen kalteak oraindik ere eztabaibagai daude, baina kutsakorrek direla argi geratu da dagoeneko.

Gainera, **teorian elikagaiak mundu guztiarentzat esku-ragarri jartzeko asmoz bultzatutako ekoizpen eredu honen ondorioz, prezioek etengabe egiten dute gora**, eta hala izaten jarraituko du. Arrazoi asko daude horrela izan dadin: petrolioarekiko menpekotasuna eta krisi energetikoa, elikagaiak ekoizteko erritmoa populazioaren igoera baino motelagoa izatea, lurra erregaiak ekoizteko erabiltzearen ondorioz nekazaritza ekoizpena txikitzea, lurren erosio eta degradazio larria, akuiferoak agortzea, arrain espezie asko arriskuan egotea, klima aldaketak uztengan duen eragina... Hori gutxi balitz, finantza-merkatua hazien prezioarekin espekulatzen hasi da.



9




10

9. Haurren desnutrizioa eta 10. Janari azkarraren gorakada.

(Worldmapper) Mapen konparaketak agerian uzten du janari-ekoizleak diren Hegoaldeko herrietan, elikadura krisi larria dagoela, haurren desnutrizioa askotan kronikoa delarik. Iparraldean, ordea, elikadura osasuntsuaren tokia multinazionalak hartzen dute: janari txarra, kantitate erraldoietan ekoitzia, azkar jan eta botatzekoa.

11. Emakume nekazariak.

(Worldmapper) Ikusten dugun bezala, Iparralde Globalean nekazaritza tradizionalak bizirauteko borrokatzen duen bitartean, Hegoalde globalean, emakume nekazariak ezagutza eta hazien zaindariak izan dira. Horien %39 Indian bizi dira.



Nekazaritza eredu hau ez **ko elikagaiak ekoizteko erabiltzen direnez, herrialde horietako biztanleek ez dute ia prezioek etengabe gora egiten duten bitartean...** Azpiegitura handien eraikuntzarako desjabetutako nekazaritzako azalera eta nekazaritzari lotutako ezagutzaren galera ez aipatzearren, noski.

Nekazaritza tradizional edo estentsiboari eustea korpazio handien kontrako borroka bihurtzen ari da munduko txoko askotan. Txiroen eta aberatsen arteko talkaz gain, inperialismoaren kontrako kutsua ere badu borrokak, azken batean, herri-ezagutza eta kultura mantentzeko borroka da. Hazien gatazka oso esanguratsua da. Jatorrizko herriek mendeetan zehar haziak zaindu, mantendu eta ugaltu dituzte: euren pilotutako jakintzari esker iritsi dira gaurdaino. Korporazio handiek, ordea, ezagutza hori lapurtu eta haziok patentatu egin dituzte, nekazariak euren erostera behartuz. Euren haziak edo landatutako hazien fruitua salerostea debekatzen diete.

Abeltzaintza intentsiboaren efektuak ere oso gogorrak dira.

Iparraldeko haragi eskaeraren gorakadak, hazten diren abereen kopurua izugarri handitzea ekarri du, eta horren ondorioak ez dira kimikoenak baino arinagoak. Alde batetik, lur azalera handiak erabiltzen dira hauek elikatzekeo pentsua ereiteko. Beraz, **gosetea hedatutako herrialdeen lur-sail erraldoiak erabiltzen dira, munduko herrialde aberatsenetako biztanleek jango duten haragia ekoizteko animaliak elikatzekeo.** Solo horiek bertakoentzako elikagaiak landatzeko erabiliz gero, neurri handi batean gosea ekidingo litzateke. Bestetik, abereok dira aldaketa klimatikoa eragiten duten negutegi-efektuko gasen isurtzaile nagusietako batzuk. Euren populazioa hainbeste hazi denez, ingurumenak ezin du CO2 igoera hori xurgatu.

Mundu mailako elikagaien merkatu hau ez da batere sostengarria, ez baitu ez sasoiez, ez distantziez ulertzen. Iparraldeko nekazariak bizirauteko komerkiak dituzten bitartean, munduko punta guztietatik iristen dira elikagaiak ontziz eta hegazkinez, izugarrizko petrolio bidean errez; bitartean, elikagaiak esportatzen dituzten herrialde horietan bertan, gose-tea izurriteak bezala zabaltzen da.

5. Soberan dauden bizitzak

“Txiroak txiroen kontra, beti bezala: txirotasuna manta laburregia da, eta bakoitzak bere aldera tiratzen du”

“- Dakitena jakin nahi dut- azaldu zuen berak. Deserriko bere kideek basati haiek giza haragia jaten besterik ez zekitela ohartarazi zuten:

- Ez zara bizirik aterako.

Baina Louise Michelek Kaledonia Berriko natiboen hizkuntza ikasi, oihanean sartu eta bizirik atera zen.

Euren tristeziak kontatu zizkieten, eta hara zergatik bidali zuten galdetu zioten:

- Zure senarra hil zenuen?

Eta berak Komunari buruzko guztia azaldu zien.

- Ah -esan zioten- Orduan garaitu bat zara. Gu bezala.”

Planeta finitu batean bizi gara, eta mugak agertzen hasi badira ere, neoliberalismoak aberastasuna banatzeko hazkundearen aldeko apologia egiten jarraitzen du: ahalik eta gehien produzitu behar dugu, horrek aberastasuna ekarriko duelako, eta gero eta aberastasun gehiago, orduan eta jende gehiagoren artean banatu ahalko da. Zorritzarez, mantra hori hamaika bider errepikatuta ere, oso agerikoa da une honetan, inoizko hazkunderik handiena dugunean, aberastasuna inoiz baino esku gutxiagotan pilatuta dagoela.

Esan bezala, kapitalismoaren egitura sozialak bizitza merezi duten bizitzak zeintzuk diren adierazten du, eta hauen bizi-modua mantentzeko gainerakoena auzitan jarri. Aztertu dugun bezala, sistema kapitalista hetero-patriarkalean merkaturaren hazkundera eta kapitalaren metaketa emakumeen eta ingurumenaren egiturazko zapalkuntzaren kontura bermatu dira.



Egiturazko beste esplotazio bat aztertu behar dugu oraindik: batzuek metatzen duten aberastasun hori sortzen dutenena, hain zuzen ere. Sistema aztertzerakoan, historikoki hemen jarri izan dituzte begiak ezkerreko mugimenduek, lanaren eta kapitalaren arteko gatazkan.

Gutxi batzuek aberastasuna metatzeko, lehengaiak eta ekoizpen baliabideak kontrolatu behar izan dituzte lehenengo. Merkatuak agintzen duen eta beharizan materialak asetzeko baliabideak diru bidez eskuratzen diren sistema batean, biztanleriaren zati handienari, ordea, bere lan indarra soldata baten truke saltzea geratzen zaio. **Batzuek pilatzen duten aberastasuna, sortu dutenei desjabetutakoa da, beraz.**

Askotan langileria soldatapeko langilieriarekin identifikatu bada ere, azken hamarkadetakoa hausnarketek agerian uzten dute begirada merkatuak kontuan hartzen dituen subjektuetatik altxatzen badugu, asko anizten dela langileria. Hau da, BBVAh subjektuaren baliokidea den gizon, zuri, heterosexual, heldu, baina langilea den subjektu horrez gain, **baldintza desberdinetan merkatua sostengatzeko eta bizirauteko bere lan indarra saltzen edo oparitzen duten subjektu anitzak** daudela. Baita soldata baten truke egiten dena ez dela aberastasuna sortzen duen lan bakarra ere. Iruditegiak iruditegi, bizitza baliotsu pribilegiatu horiek sostengatzeko lan egiten duten pertsona guztiak direla langileak.

Herrialde batzuen hazkundera beste batzuen lehengaien kontura egiten da. Lehenago aipatutako 30 urte loriatsuetan sortutako aberastasunak Iparralde globalean klase ertaina delakoa hedatzea eta berdintasun faltsu baten sentsazioa hedatu zuen. Ezin berdina esan periferiako herrialdeez. Historian lehenago lurraldeen baliabideak espoliatzeko berauek indarrez konkistatzen ziren bezala, XX. mendetik hona, erosi egiten dira. **Epe luzera, herrialdeen benetako aberastasunak bere bizi-raupenerako beharrezkoak dituen baliabideen autogestio gaitasunean datza.** Espolio horrek Lehen eta Hirugarren munduak betiketzea ekarri du, azkenengoei burujabetza zentzu guztietan ebatsi zaie eta. Neoliberalismoaren eskutik merkantzentzako mugak eraistean, ekoizpen prozesuen deslokalizazioa etorri, eta baliabideak lapurtzen zizkieten herrialde bereber, eskulan ezin merkeagoa ere inposatu zitzaion, dela makiletan, dela multinazionalen soldata lotsagarriak ordaintzen dizkieten fabriketan. Egoera konplexuak sortzen ditu horrek, esku-lan

12. Hondamen naturalen ondoriozko erailketak eta 13. Hondamen naturalen ondorioz kaltetuak (1975-2004). (Worldmapper)
Lehorreak, lurrikarak, sumendi leherketak, tsunamiak, uholdeak... Hondamen naturalek bereziki Asia hegoaldea eta ekialdea kolpatu dituzte, baina heriotza gehien Afrika eta Hago Amerikan eragin. Aurre egiteko baliabide gutxiago izatea, alde batetik, eta hondamendi hauei lotutako giza gatazkak, bestetik, kontuan hartu behar ditugu. Aldaketa klimatikoak fenomeno hauek areagotu egingo ditu.



merkearen bila egindako deslokalizazioa borrokatu beharreko zerbait den arren, fabrikak kokatu diren eskualdeetan lanpostu horiekiko menpekotasun ekonomikoa sortu delako.


Herrien kontrako zapalkuntza h orrek izugarritzko giza-bizitzen faktura du. Gosetea, kanporaketak, lan-istripuen, azpiegitura ezegokien edo elementu kutsakorren ondoriozko heriotzak, hizkuntza eta kulturen galera... Herriak, nola ez, defendatu egiten dira euren kontrako sarraskiaren aurrean, eta kapitalak bortizki erantzuten du korporazio handien zein estatuen bidez: Sri Lankak (beste gauza batzuen artean) euren zonaldeak merkatuarentzako zuen balio estrategikoagatik tamien kontra egindako sarraskia; euren lurretako kotoia (Benetton) edo energia-iturriak (Endesa) eskuratzeko maputxeen kanporaketak; baliabide naturalen edo lanpostu duinen defentsan diharduten sindikalista zein lider indigenen kontrako erailketak Kolonbian, Hondurasen...

Iparralde globalak hainbeste heriotzarekin sostengatutako bizi-eredua ez aldatzeko, aurrerago ikusiko dugun bezala, **bizitza horiek ikusezin bihurtu dituzte, euren heriotzak ere ikusezinak izan daitezten.** Inporta ez duten bizitzak eta heriotzak. Prozesu hori bideragarria egiteko, ezinbestekoak izan dira arrazakeria eta alienazioa, besteak beste.


Bitartean, krisialdiak lehertzean, **langileriaren bizi baldintzak prekarizatu, eta salbatzea merezi ez duten bizitzak zeintzuk diren agerian geratzen ari da Iparraldean ere.** Enpleguen suntsiketa, enpresen deslokalizazioa, estatuek zerbitzu publikoak eta laguntzak deuseztatzea, lanaldi partzialak areagotzea...

Krisia lehertzean, kapitalismoaren birfundazioaz hitz egiten hasi ziren politikari neoliberalak medioetan. Enplegua sortzeaz, enpleguak dena konponduko zuelakoan. Hala ere, pertsonen interesak defendatu beharrean, bankuak erreskatzeari ekin zioten, estatuak nazioarteko finantza erakundeetako zorpetuz, hau da, zor pribatua zor publiko bilakaturik. Estatuak kapitala babesteko tresna bihurtzen da, pertsonak, bizitza, babesgabe utziz. Zorpetzearen tranpan erorita, nazioarteko erakunde finantzarioek austeritate-politikak inposatzen dizkiete estatuei, defizit publikoan murrizketak egitera behartuz. Kapitala eta bizitzaren artean, kapitala.

Pobrezia hedatzen hasi da, aurpegi desberdinekin: etxe kaleratzeak, nagusien pentsioarekin bizi diren familiak, atzerrira joatera behartua ikusten diren iheslari ekonomikoak (betiko emigranteak), etorkizuneko pentsioetan zein egungo bizi-baldintzetan ondorioak dituzten soldata negargarriak, malgutasunaren izenean sortutako kontratu mota prekarioak, gano-



14



15

14. Errefuxiatu eta desplazatuen jatorria eta 15. Errefuxiatu eta desplazatuen helmugak.

(Worldmapper) Mapak hauek 2003an egin zirenean, 15 milioi errefuxiatu eta barne-desplazatu zeuden munduan. ACNUR-en arabera, 2016an minutuko 20 pertsonak utzi behar izan zuten atzean euren ordura arteko bizitza. Agerikoa da Hego Amerika eta Ekialde Hurbila direla egoera horretan dauden pertsonen jatorria, arrazoi nagusiak, gatazka armatuak eta jazarpen erlijiosoa, etniko edo arrazista. Gehienak barne desplazamenduak ziren, Pakistan, Iran eta Alemania zirelarik gehien hartzen zituztenak.

razko mediku-arretarik jasotzen ez duten pertsonak, hilabete bukaerara iristeko estutasunak, emantzipazioa etengabe atzeratzea, desnutrizioa hedatzea, pobrezia energetikoa... **Horrek denak ziurgabetasuna ekarri du bizitzetara, kapitala eta bizitzaren arteko gatazka agerian utziz.** Izan ere, pribilegiatuak zirenek, aberasten jarraitu dute, munduko aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa delarik.

Egiturazko esplotazio horri, lehenago azaldutako krisiak gehitu behar zaizkio. Aipatu dugu aldaketa klimatikoak dagoeneko txiroak diren eta aurre egiteko baliabiderik ez duten herrialdeak honezkero kolpatu dituela. Lehorteak, uholdeak, muturreko fenomeno naturalak... txirotutako herrialdeetako pobreziatik ihesi mendebaldera iristen saiatzen ziren etorkinei, errefuxiatu klimatikoak gehitu behar dizkiegu, gero eta jende gehiago izaten ari delako bere jaioterritik kanporatua.

Era berean, interes geo-estrategikoen eragindako gerren ondorio dira **errefuxiatu uholdeak.** Siriako da egun medioak (noizean behin) hartzen dituen, baina milioika dira guztira Afrikako gatazka desberdinetatik, Ekialde Hurbila azken urteetan izan den bolbora-ontzi horretatik... ihes egiten dutenak.

Gerren ondoriozko errefuxiatuak, klima aldaketaren on-

doriozkoak, egoera ekonomikoen ondoriozkoak... Sistemarentzat une honetan erabilgarriak ez diren bizitzak, eta beraz, soberan daudenak dira. Ez dago eurentzako enplegurik, ezin dute kontsumitu... ez dute merkatuan funtziorik. **Agerikoa da Iparralde globalean ez garela denok sartzen, eta hala balitz ere, ez dagoela borondate politikorik horretarako.** Gure bizi baldintzak mantentzeko, baliabideak gorde behar dira, Europa gotortu, soberan dagoen inor sartu ez dadin. Duguna elkar-banatzeak, zertxobait galtzea dakar, edo dugun zor erraldoi bat kitatzea. Horregatik hasi dira mendeetan ikusi ez diren harresiak berriro ere agertzen: finitua den planeta batean mugak agerian geratzen ari dira, eta pribilegiatuek dutena mantendu nahi dute desjabetuen aurrean, berdin bizitzen jarraitu eta errealtateari uko egiten jarraitu ahal izateko.

Bizitzen galera eta mina hedatzea baino ez du horrek lortuko, apokalipsiei buruzko pelikuletan bezala: modu ordenatu batean antolatu beharrean, jendea korrika supermerkatuak husteratzen, gainerakoentzako ezer ez geratzea axola gabe. Lehenago edo beranduago, zibilizazioaren kolapsoak Iparraldea ere kolpatuko du. Esan bezala, hasi dira bere ondorioak nabaritzen: Europako mugen barruan ere, hasi dira migrazio mugimenduak, hasi da gosea, kronifikatzen pobrezia.

5. Errealitatea ez ikusteko diseinatutako jendarteak

“Somnanbuluen jendarte-proiektu batean, hiritar bakoitza bere buruaren eta gainerakoen polizia izan behar da”

Jendarte *modernoaren* ezaugarritzearen oinarrian mito bat dago: pertsonak autonomoak, independenteak garena. *Independenteak* eta *libreak* izatea da gure helburua. Zoritxarrez, **kapitalismoan “independentea” adierak beste inoren edo ezeren beharrik ez izatea esan nahi du, eta libreak, eskaintzen zaizkigun kontsumo aukeren artean, askatasunez aukeratu ahal izatea.** Biak ala biak sistemak eragindako ilusio faltsuak besterik ez dira. Alde batetik, hasieran esan bezala, pertsonak izaki sozialak garelako, eta bizirauteko ezinbestekoa dugulako elkarren arteko harremana zein bizi garen inguruarekiko harremana. Bizitzako uneoro behar dugu beste pertsona batzuekin elkarrekintza, unearen arabera intentsitatea, harremanaren norabidea eta forma aldatu arren. Inguruarekin harremantzea ere ezinbestekoa dugu: bizitza ez da bakarrik mantentzen. Elikatu egin behar gara, edan, horretarako ura eta elikagaiak lortu, landatu, hazi... Inguruak gudan eragiten du eta alderantziz. Ezinezkoa da pertsonak independenteak izatea, nahiz eta merkatuak ideia hori sartu digun buruan: inoren beharrik edo zaindu beharrek kargura ez izatea, erantzukizunik gabe nahi duguna nahi dugunean egin ahal izatea, lehiakorrek izatearen araberrako arrakasta, mugarik ez balego bezala nahi haina kontsumitzea... Indibidualismoa errealitateari ezikusia egitea da. Baina indibidualismo horrek harreman osasuntsuak eta elkarlana oztokatzen ditu, lehiakortasunaren eta axolagabetasunaren mesedetan.

Bestetik, sistemaren logiketan murgilduta ez gara askeak, kapitalismo hetero-patriarkalak gure erabaki txikiena ere alde aurretik bideratzen duelako: nor maiteko dugun eta nor ez; zer ikasi eta zertan lan egin; aisialdia gozatzeko, lanerako edo besteentzako erabiliko dugun; zer, nor eta nola zainduko dugun; gure janzkera, ibilkera eta hizkera; seme-alabak edukiko ditugun ala ez; zer jango dugun eta non erosi... **Kontsumoaren jendartean murgilduta bizi gara, zoriontasuna kontsumotik jasotzen ikasi dugu, ez harreman osasuntsuetatik.**

Medioek izugarriko papera dute jendartearen eraikuntza honetan. Jarraitu behar ditugun ereduak erakusten dizkigute, ametsak eraiki... Publizitateak behar faltsuak sortzen dizkigu gure kontsumoa bideratzeko: benetako beharrak balira, ez genuke inork beharrezkoak direla esaterik behar. Era berean, komunikabideek gure interesekoa zer den eta zer ez esaten digute: minutu bat eduki dezake hilean Palestinak albistegietan, baina Athletic-eko futbol jokalarien lesioen garapenaren berri egunero dugu. Munduko minen aurrean sentiberatasuna galtzea eragiten digute,

maila berean jarriz ehunka pertsona hil dituen tsunamia, musika talde baten diskoaren aurkezpena, alzheimerren inguruko aurkikuntzak, enpresen goi bilkurak, lan gatazkak, gerrak... Errealitate irreal bat transmititzen digute gure inguru hurbilean zein urrunean gertatzen dena ezagutu ez dezagun. Berezi, soberan geratzen eta desagertzen diren bizitzekin enpatizatu ez dezagun. Alienazioa ezinbesteko anestesia da hainbeste sufrimendu eta indarkeria behar dituen sistema bat sostengatzeko.

Are gehiago, medioek gure denbora eta harremanak irentsi egin dituzte: telebistak jan dizkigu. Eguneke nekeari aurre egiteko, bakoitza bere etxean telebistaren aurrean jartzea bihurtu da ihesbide, **harreman sozialak garatzeko espazioak desagertzen** doazelarik. Komunitatea ahultzen da horrela, bizitzak babesten dituen espazioa.

Indibidualtasuna goratzen den eta dena diruaren arabera baloratzen duen jendartean, gutxietsiak daude auzolana, komunitatea, militantzia, elkar laguntzea... dirua tartean egon gabe denbora suposatzen duen edozer. Kezka eta koherentzia ere mesprexatu egiten dira: besteen arazoan aurrean axolagabetasuna da arau. Ondorioz, **soberan geratzen doazen bizitza horiek egoera horretara iritsi izana norberaren bizitzatik deslotu egiten da, baten eta besteen ekintzen artean inongo loturarik ez balego bezala.** Gainera, errealak diren kezkek atzeratzeko joera handia dugu: zergatik kezkatuko nau aldaketa klimatikoak, hilabete bukaerara iristen ez banaiz?

Alienazioak errealitatea zalantzan ez jartzea bermatzen du, erresistentziak aurrezte. Borroken eta aldarrikapenen kriminalizazioaren gorakadak arrakasta handia du kohesio sozialak baliorik ez duen jendartean. Errealitatea ezagutzeko interesik ez dagoenean, errazena medioek diotena sinestea da. Ondorioz, kontrol sozialak bide erraza dauka, edozein gatazkaren aurrean, indar armatuen presentzia handiagoa eskatzen baitu arriskuan dagoela sinistu duenak.

Horrela, krisiak lehertzen direnean, shock-a da erantzuna: zer pasa da? Nola gertatu ahal izan zait niri? Erantzuteko beldur gehiegi eragiten duen shock-a, eta botere politiko zein ekonomikoek euren mesederako neurriak hartzeko baliatzen dutena: lan eta pentsioen erreformak, frantziar estatuko salbuespen egoera, espainiar konstituzioko 135. artikulua...

6. Ezinbesteko trantsizioa

Ikusi dugun bezala, zibilizazio krisi batean murgilduta gaudela, eta kolapso baterantz goaz. Planetako baliabideak bukatzen ari diren heinean, **desazkundea eman, emango da. Nola emango den da ordea, afera.** Azken unera arte ezikusia egin diezaiokegu errealtateari, eta leher egitean, bizirauteko borroka kaotiko batean murgildu; edo gaurdanik erritimoa jaitsi eta norabidea alda dezakegu. Ekiteko atzerakontua martxan da.

Kapitalismoa sistema harrapakaria dela ikusi dugu, hazkundea bizirauteko beharrezkoa du, eta beraz, azken unera arte suntsitzen jarraituko du: **neurri leungarriek kolapsoa atzeratu besterik ez dute egingo.** Sistema aldatzea ezinbestekoa da.

Horretarako, egitura sozioekonomikoa eta gure bizi-eremuak aldatu behar ditugu ezinbestean. Herrien burujabetza berreskuratu eta herritarren parte-hartzea eta demokrazia oinarri izango dituen trantsizioa martxan jarri. **Ekologikoki sostengarria, sozialki justua eta demokratikoki diseinatua izango den trantsizioa.** Bizitzak erdigunean jarri eta berau sostengatzeko beharrezkoak diren lan guzti horiei ikusgarritasuna eta balioa eman. Eta, nola ez, komunitatearen artean banatu. Elkartasunezko eta berdintasunezko balioak indartu, justiziari benetako zentzua eman. **Gure bizitzen burujabetza**

berreskuratu, merkatuen zerbitzura egoteari utzi eta bizitzak erdigunean jarriko dituen eredu bat eraikitzeko.

Baina, nola egiten da hori? Nondik has dezakegu bizitza erdigunean jartzeko trantsizio hau? Zeintzuk dira bide horretan eman beharreko urratsak?

Horri erantzutera datoz URRATSAK, Ipar Hegoa Fundazioak urtarriletik aurrera hilean behin argitaratuko ditugun artikuluak. Hain handia da eman beharreko aldaketa, urrats handi zein txikiak daudela proposatzeko. Proposamen horiek jaso nahi ditugu, eztabaidagai jarri. Bidea nola egin hausnartu, eta urratsak ematen hasi, ez baitugu galtzeko denborarik.

Urrats batzuk norberak ematekoak izango dira, gure ekin-tzek izugarritzko balio eraldatzailea dutela uste dugu eta. Beste batzuk taldean, komunitatean, ematekoak izango dira, bide honek bakarrik eginda ez baitarama inora. Beste batzuk, administrazio publikoen bidez eman beharko dira, egiturazko aldaketak bultzatu nahi ditugulako, eta beraz, egitura zaharrak suntsitu. Ez ditugu urratsok zama bat, sakrifizio bat bezala ulertu behar, izan ere, gure bizitzak aberastuko dituen prozesu askatzaile bat osatzen dute. **Hilean urrats bat, urratsez urrats egiten baita bidea.**

Bibliografia

Azkarraga Etxagibel, Joseba *"Euskal Harriak"*. Alberdania. Irun, 2011

"Azken Deia" manifestua. Iberiar Penintsulako toki anitzetan, Balearretan, Kanarietan, Ceutan eta Melillan, 2014

Cembranos, Fernando; Herrero, Yayo; Pascual, Marta (coords.) *"Cambiar las gafas para mirar el mundo. Una nueva cultura de la sostenibilidad"* Libros en Acción. Madrid, 2011

Diamond, Jared *"Colapso. Por qué unas sociedades perduran y otras desaparecen"* Debate. Barcelona, 2006

Gaindegia *"Des-herria: hausturak eta etenak Euskal Herrian"* Gaindegia eta Ipar Hegoa Fundazioa. Euskal Herria, 2016

Herrero, Yayo; Prats, Fernando; Torrego, Alicia *"La Gran Encrucijada. Sobre la crisis ecosocial y el cambio de ciclo histórico"* Libros en Acción/Foro Transiciones. Madrid, 2016

Herrero, Yayo *"Retos del movimiento ecologista ante la crisis global"* en Revista Andaluza de Antropología, nº6: Los movimientos sociales y la contestación al orden global. 2014ko martxo

Klein, Naomi *"Esto lo cambia todo. El capitalismo contra el clima"* Paidós, Barcelona 2015.

Legarreta, Matxalen; Sagastizabal, Marina *"Denbora eta lanEn banaketa", "Talaia gogoetarako gunea: 03. Lanaren eta aberastasunaren banaketa"* aldizkarian. Ipar Hegoa Fundazioa. Euskal Herria, 2013

Pérez Orozco, Amaia *"Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida"* Traficantes de Sueños. Madrid, 2014

Reyes, Oscar *"Cambio climático S.A.: la gestión del riesgo y la obtención de ganancias por parte de las corporaciones transnacionales en un mundo de cambio climático descontrolado"* en Buxton, Nick; Hayes, Ben (eds.) *"Cambio Climático S.A."*. Fuhem Ecosocial. Madrid, 2016

Riechmann, Jorge *"El socialismo puede llegar sólo en bicicleta. Ensayos ecosocialistas"* Los Libros de la Catarata. Madrid, 2010

Taibo, Carlos *"Colapso: capitalismo terminal, transición ecológica, ecofascismo"* Los Libros de la Catarata. Madrid, 2016

"¿Por qué el decrecimiento? Un ensayo sobre la antesala del colapso" los Libros del lince. Barcelona, 2014

Tanuro, Daniel *"El imposible capitalismo verde. Del vuelco climático capitalista a la alternativa ecosocialista"* La Oveja Roja/ Los Libros de Viento Sur. Madrid, 2011

Urkidi, Leire; Garmendia, Eneko (eds.) *"Euskal zor ekologikoa: ondorio sozial eta ekologikoak Hegoaldean"* Ekologistak Martxan, Ekolpol eta EHU. EHU, 2012